

Urumea ertza garbitu eta egokitzen ari dira

■ Oinezkoentzako bideak txukundu, basurak garbitu, bainatzeko tokiak egokitu eta abar egingo dituzte ■ Udalak eta INEMek elkarlanean ari duten proiektua da.



Fagollagako zubitik (errioz beste aldera) aurrera dijoan oinezko bidea, txukun asko jarria.

HAMAICA lagun Urumea ibai ertza garbitzen ari dira azaro hasieratik. Bideak egokitu, basurak garbitu, desbrozatu, trabako arbolak bota, legez kanpo eginiko txabolak kendu eta egoteko eta bainurako tokiak egokitzea dute lana. Proiektua Hernaniko udalak eta INEMek daramakite elkarlanean.

HERNANIKO PARTEA

Asmoa, poliki-poliki Hernaniri dagokion Urumea ertz guztia garbitu eta oinezkoentzako egokitzea da. Oraingoz garbitzen ari dira: bide beltza (Zikuñaga atzekaldetik dijoana), Fagollaga eta Ereñotzu arteko oinezko bideak (ibaiaren alde bietara daudenak) eta Ugaldetxotik Aparrainako oinezko bidea.

Pagoagako erribera, Ereñotzu auzo ingurua eta zenbait erreka adar ere ari dira garbitzen. Bizikletentzako bi apar-kaleku eta kartelak ere jarriko dituzte toki batzuetan.

INGURUGIROA ZAINDU ETA LANA SORTU

Mila Apezetxea udal zinegotziak esan digunez bi helburu nagusi ditu proiektu honek:

ingurugiroa zaintzea eta jendea-ri lana ematea. “Urumea ertzari, garbitzeaz gain, aisialdirako erabilera eman nahi diogu”.

LANDARERIA ABERATSA

Urumea ertza oso aberatsa da

landareriari dagokionez; begiratu besterik ez dago jabetzeko. *EAEko Ibai eta Erreken Ordenazio Planak* ere “landareria ondo zaidutako eremu” katalogatu ditu txukuntzen ari diren bazterrak. □



Garbiketa lanetan ari diren langileak.

JAI EGUNEN AUZIA

NEAEk gaur jai hartzeko deia egin die herritarrei

■ Ekitaldia egingo dute eguerdiko 12:00etan Plaza Berrian ■ Konstituzio egunean lan egingo dute.

Nazio Egutegiaren Aldeko Ekimena zenbait komertzio, elkarte eta gizarte erakundek osatzen dute. Bultzatzen dutena da Konstituzio, Santiago eta Pilarika egunetan lan egitea, jai egun hauek “espainiar izaera” dutela-eta. Jai egun horien ordezkoko beste batzuk jartzen ari dira beren egutegietan.

Horietako bat gaurko eguna da: Kontseiluak “Euskararen eguna” izendatu duena.

EKITALDIA

NEAEk ekitaldi bat prestatu du gaurko. NEAEko kide bat, Udaltzako beste bat eta bertsolariak izango dira, 12:00etan Plaza Berrian. □

Tabernariak batzarra egingo dute bihar arratsaldean

■ Zumitza tabernan izango da batzarra, arratsaldeko 16:00etan.

HERNANIKO Tabernariak urteroko batzarra egingo dute bihar arratsaldean. Hiru gai aztertuko dituzte:

- 1) 2002ko jai egutegia zehaztea.
- 2) Sagardotegi garaiko ordute-

gi berezia aztertzea.

3) Euroarekin izan daitezken gorabeherak aztertzea.

Batzarra arratsaldeko 16:00etan izango da Zumitza tabernan. Hernaniko tabernariak dei egiten diete, azaltzeko. □

BERTSOLARITZA

Lujanbio, Irazu eta Mendiluze, Finalera

■ Atzo jokatu zen Euskal Herriko Bertsolari txapelketako azken finalaurrekoa. Finalistak hauek izango dira: Maialen, Irazu, Mendiluze, Iturriaga, Maia, Colina, Elortza eta Egaña.

ONGINTZA -PREBENTZIOA FAMILIAN-

“Haurtzaroa eta familia” tailerra bihar, Biteri kultur etxean

■ 8 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoentzat da ■ Bihar, asteartea, 14:45etatik 16:15etara.

ONGINTZAK jardunaldiak antolatzen ditu droga prebenitzeko kanpainaren barruan. Familia barruan nola lan egin ari dira lantzen. Elizatxo, Inmaculada, Urumea eta Langileko guraso elkarteekin eta

Askagintzarekin elkarlanean antolatzen ditu jardunaldiak. “Formatu, entzun eta entzunda sentitzeko, eta guraso bezala positiboki aritu nahi duten aita eta amentzat da biharko tailerra” diote Ongintzakoei. □

OINDI

taberna

NAGUSIA, 25
HERNANI
943 557 509

HATOR
Asesoria
AHOLKULARITZA

Fiskala
Laborala
Kontablea
Administratiboa

HATOR
Aseguruak

Kardaberaz 60
Tel. 943. 55 43 12
20120 HERNANI

Nº 65.974 Zkia.

GALERIAS BUEN PRECIO, AITOR PEÑA,
ARETZE HARATEGIA, LIRAIN MODAK,
JAIONE KONJELATUAK,
IMAGE CENTER J.A.TORRES

Dendari hauek 20 Pztako partaidetza oparitzen dizue, 2001eko abenduaren 22an zozketatuko den Loterian.

Zuen konfidantza eskertzen dugu.

ZORTE ON !

ZINGI ZANGA
jaketxea
Eguneko menua
1.000 pztan.
Ettxeko sukaldaritza
d f g c
Florida 54 - HERNANI

Artisau Azokan jendea erruz, aurten ere

■ Eguraldia lagun bete-bete egon zen Gudarien plaza.



Artisaua lanean eta jendea begira, atzo plazan.

HERNANIKO artisau azokak izena hartua du dagoeneko, eta jendez lepo egon zen atzo ere Gudarien plaza. Hogeita sei artisauk gain-gainean izan zuten jendea, eskuen abildadeak zeharo txundituta.

ANTOLATZAILEAK GUSTORA

Antolatzaileak gustora dau-de jendearen erantzunarekin. Iaz gehixeago bazen ere aurt-ten asko inguratu omen da eta artisauak ondo saldu omen dute batez beste. □

MUS TXAPELKETA -ELKARTE ARTEKOA-

Elizatxo txapeldun Gure Txokori 4-1 rabazita

■ Hirugarren Santa Barbara izan da; laugarren Etxeberri.



Sarituak eta antolatzaileak larunbateko afalondoan, Ur-Mia elkartean.

ELIZATXOKO Andoni Perez eta Ricar Moralesek irabazi dute Elkarte arteko Mus txapelketa. Gure Txokoko Antonio eta Manolori 4-1 irabazi zioten finala. Hirugarren Sta Barbarako Manu

Irastorza eta Txetxo Adarraga gelditu dira, Etxeberriko Cordero eta Manolori irabazita.

Hernaniko 11 elkartetako bina bikotek hartu dute parte. Par-tehartzaileek afaria izan zuten

Ur-Mian, larunbatean. Afalondoan sari banaketa egin zen. Lehen saria Ur-Mia Elkartek jarri zuen, bigarrena Euskadiko Kutxak; hirugarrena Udalak eta laugarrena DVk. □

JASOTA BEZALA

Abenduak 6, ikasleok ez dugu ezer ospatzeko.

Abenduaren 6an, espainiar konstituzio eguna ospatzera behartzen gaituzte. Baina hau ez da Euskal Herria eta euskaldunen-gan burutzen duten zapalkuntza bakarra, hau da, jai egunetaz gain, beste hainbat inposaketa jasaten baititugu: Bi hezkuntza sistema bereizitan ikastera behar-

tuak gaude ikasleok, hau dela eta gure herriaren ezagupen histori-koa ukatua dugu, balore eta eredu atzerakoiez hornitua, gure nahiei egokitzen ez zaien legediak ezar-tzen zaizkigu. Guzti hau dela eta, inposatutako jai egun honi, IN-TSUMISIOZ erantzuten diogu.

Euskal ikasleak gara, beraz, euskaraz ikastera, Euskal Herriko edukiak jorratzera, euskal hez-

kuntza nazionalaren bidean beste urrats bat ematera goaz.

Beraz, Hernanin, egun horre-tan (abenduak 6) Herri Eskolak burutuko dira beste hainbat ekin-tzen artean.

IKASLEOK EUSKAL HERRIA INDARRA ETA BORROKA!!

Hernaniko Segi eta Ikasle Abertzaleak

HITZ BITAN



Mikel eta Nerea Lasa hernaniarrak dantzan, eta epaileak begira.

✓ DANTZARI TXAPELKETA

Bergarako Alex Torre eta Josune Fernandez irabazle. Bigarren, Lezoko Jon Otxoa eta Isabel Domingez gelditu ziren; hirugarren, Azkoitiko Xabier Etxaniz eta Leire Larrañaga; laugarren, Elgetako Andoni Elortza eta Hiart Bolinaga; eta bosgarren, Urduliz eta Leioako Eneko Lacalle eta Haizea Ormaetxea. Ikusle asko bildu zen Plaza Berriara, txapelketa ikustera.

✓ FUTBOLA

Hernanik 5-0 egurtu zuen Irun, atzo Zubipen.

Hernanik partidu borobila jokatu zuen atzo, eta punteria haun-dikoa gainera. Bost gol eta hiru puntu oso garrantzitsu. Hemendik aurrera, gora begiratzeko moduan dira hernaniarrak, horrela jokutzen badute behintzat.

✓ BOLEIBOLA

Bertan behera gelditu zen Nafarroako Uniber-tsitateak eta UPV Hernanik jokatu behar zuten partidua. Iruñako kantxak boleibolerako behar diren kon-dizioak betetzen ez dituela eta, suspenditu zuten partidua. Erabakia UPV Hernani eta epaileek hartu zuten. Dirudienez, kan-txa honek sapaia oso bajua omen du, eta boleibolaren jokoak sabai altua behar du, gainontzean, hirutik bitan baloiak sapaia jo eta jokoa etengo bailitzateke. Iaz ere salatu zuten hernaniarrek Iruñako kantxaren egoera.

✓ ESKUBALOIA

Hernanik goian jarraitzen du, Oñatin irabazita.

Partidu txarra jokatu arren, garaipen garrantzitsua ekarri dute her-naniarrek Oñatitik. Defentsan nahiz atakean ez ziren oso fin ibili, baina, Aloña Mendikoak baino hobeto bai. 22-25 irabazi zuten larunbatean eta sailkapeneko lehen postuetan jarraitzen dute.

✓ ERRUGBIA

Hernanik 8-22 irabazi zuen atzo, ondo jokatu-ta.

Gaizki hasi bazen ere gora dijoa Hernaniko errugbi taldea. Atzo aise hartu zuten menpean Kakarraldo. Defentsan sendo aritu ziren eta atakean ere bikain. Dagoeneko sailkapeneko erdi aldean daude hernaniarrak hiru partidu irabazi eta lau galduta. Badirudi forma puntua arrapatzen ari direla. □

IRAGARKI MERKEAK

■ Gazte bat behar da Hernaniko taberna batean lan egiteko. Euskaraz dakiena. Interesatuak deitu: 658 750896 edo 943 364605 telefonora.

■ Hernani inguruko jatetxe batean sukalde laguntzaile bat behar dugu. Garraiatzeko modua beharko du. 943 55 02 40.

KIROLAK - EMAITZAK

FUTBOLA	TALDEAK	WATERPOLOA	TALDEAK	PELOTA	BIKOTEAK
Gorengo maila	Hernani 5-Irun CF 0	Eusk.H. Liga	Hernani A-D.Naútica	P. goma	Usabiaga-Lujanbio / Hoz-Salaberria
Emakum. liga.	A.Vitoria 7-Hernani 0	Eusk.H.L. Emak.	Santoña-Hernani	Eskuz Bin	Ezeiza-Huizi 22 / Ikaskirola 12
1. Erregionala	Hernani 0-Allerru 1	Eusk.H.L. 2.maila	Hernani B-Easo	Esk.Bin.	Alvarez-San Seb. 14 / Txapagain 22
Gazt. L. Naz.	Bermeo 3-Hernani 0	ERRUGBIA	TALDEAK	Esk. binaka	Zurriola / Irazustabarrena-Elizalde
Gazteak Ohor.	Euskalduna 2-Hern.1	Seniorra. 1.maila	Kakarraldo 8-HCR 22	Esk. binaka	Apezet.-Grajal 13 / Gazteleku A 18
Kadet. Ohor.	Añorga 2-Hernani 4	Jubena. Euskal	Hernani 103 -Gernika 0	Esk. Bin. jub.	Azpitarre-Iraola 18 / Gazteleku B 4
Kadet. 2.maila	Hernani 4-Ostadar 1	Kadetea. Euskal	Hernani 96-Gernika 3	Pala motza	Ubarretx.-Galartza 40 / Gazteleku 33
Haurrak Ohor.	Hernani 4-Anaita. 0	Infant. Lagunar.	Hernani 55 -Irun 0	Esk. bin. Sen.	Jon Zabala-Argote 8 / Zazpiturri 22
BOLEIBOLA	TALDEAK	ESKUBALOIA	TALDEAK	Esk. bin. Sen.	G.Erroizenea - Oteiza / Oskarbi
1.Autonomika	UPNA-Hernani (susp.)	Euskadiko L.	Aloña M. 22-Hernani 25	Esk. bin 3.	Oier Mendizabal-Landa / Lagunak
Kadet. neskak				Esk. bin. Jub.	Yagoba Yubero / Oskarbi (Elgeta)

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

►Taxiak:
943 550093
►Udaltzaingoa:
943 333288
►DYA:
943 464622
►Anbulatorioa:
943 557750
►Jokalaria anonimoak
943 331103

⚕ FARMAZIAK

►Egunez: Gomez
Nagusia 15
☎ 943 554892
►Gauetz: Acha-Orbea
Lasarte. Hipodromo et.
☎ 943 363549
⚕ **ASTEARTEA**
►Egunez: Bulnes
Etxeberri
☎ 943557738

►Gauetz: Urbistondo
Lasarte. S. Francisco 1, B
☎ 943 366567

⚕ ASTEAZKENA

►Egunez:Chucla
Kardaberaz 48
☎ 943 551793

►Gauetz: Iturralde
Usurbil. 13 poligonoa
☎ 943 363395